



**2024KO EKITALDIKO AURREKONTU
ALDAKETEN AZTERKETA**

**ANÁLISIS MODIFICACIONES
PRESUPUESTARIAS PRESUPUESTO 2024**

0. SARRERA

Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako aurrekontua, 2024rako luzatua, honako hau izan zen:

- a) Gastuen egoeraren zenbatekoa 3.173.064.975,12 eurokoa da guztira.
- b) Sarreraren egoera, zenbatekoa 3.192.147.855,71 eurokoa da.

Aurrekontu honek hainbat aldaketa izan ditu ekitaldian zehar, eta **3.233.734.788,30** euroko AZKEN AURREKONTURA iritsi da gastuetan eta **3.233.753.940,97** eurokora diru sarreretan.

0. INTRODUCCIÓN

El Presupuesto de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2023, prorrogado para 2024, ascendió a:

- a) El Estado de Gastos, cuyo importe totaliza la cantidad de 3.173.064.975,12 €.
- b) El Estado de Ingresos por una cantidad de 3.192.147.855,71 €.

Este presupuesto a lo largo del ejercicio ha experimentado una serie de modificaciones presupuestarias, llegando a un PRESUPUESTO FINAL de **3.233.734.788,30** € en gastos y de **3.233.753.940,97** € en ingresos.

(Eurotan) (En €)

KREDITU BAIMENDUAK / CRÉDITOS AUTORIZADOS 24			
SARRERAK / INGRESOS		GASTUAK / GASTOS	
Hasierako aurrekontua Presupuesto Inicial	3.192.147.855,71	Hasierako aurrekontua Presupuesto Inicial	3.173.064.975,12
Gaikuntzak Habilitaciones	5.144.586,57	Gaikuntzak Habilitaciones	23.490.086,72
Baliogabetzeagatikoa baja Baja por Anulación	-161.539,77	Baliogabetzeagatikoa baja Baja por Anulación	-161.539,77
Transferentziak Gehikuntzak Transferencias Aumentos	33.208.615,00	Transferentziak Gehikuntzak Transferencias Aumentos	28.495.076,76
Transferentziak Gutxikuntzak Transferencias Disminuciones	-33.208.615,00	Transferentziak Txikitzeak Transferencias Disminuciones	-28.495.076,76
Erantsiak Incorporados	34.364.634,35	Erantsiak Incorporados	34.364.634,35
Diru sarrerei lotutako gastuak Gastos con Financiación Afectada	2.258.404,11	Diru sarrerei lotutako gastuak Gastos con Financiación Afectada	2.976.631,88
GUZTIRA / TOTAL	3.233.753.940,97	GUZTIRA / TOTAL	3.233.734.788,30



Kredituak **GEHITU eta BALIOGABETZEAREN ONDORIOZKO BAJA**ri dagokionez, honako hauek izan dira:

Por lo que respecta a la **INCORPORACIÓN y BAJA POR ANULACIÓN de créditos**, éstas han sido las siguientes:

	€
– Gastuen eransketa / Incorporación de Gastos	34.364.634,35
– Sarrerren eransketa / Incorporación de Ingresos	34.364.634,35
	0,00
– Gastuak baliogabetzeagatik baja / Baja Anulación Gastos	161.539,77
– Sarrerak baliogabetzeagatik baja / Baja Anulación Ingresos	161.539,77
	0,00
Guztira / Total:	0,00

GAIKUNTZA, KREDITU GEHIGARRI eta LOTUTAKO FINANTZAKETADUN GASTUEI dagokionez, honako hauek izan dira:

Por lo que respecta a las **HABILITACIONES Y CRÉDITOS ADICIONALES**, y las relativas a **GASTOS CON FINANCIACIÓN AFECTADA** éstas han sido:

	€
–FLG sarrerak / G.F.A. Ingresos	2.258.404,11
–FLG gastuak / G.F.A. Gastos	2.976.631,88
	-718.227,77
–Sarrerren gaikuntzak / Habilitaciones Ingresos	5.144.586,57
–Gastu gaikuntzak / Habilitaciones Gastos	23.490.086,72
	-18.345.500,15
Guztira / Total:	-19.063.727,92
SALDOA / SALDO:	-19.063.727,92

Adierazi behar da 2024ko ekitaldian aurrekontua luzatu egin dela. Hortaz, funts gehigarritz hornitzeko, kreditu gehigarriak onartu behar izan dituzte Arabako Batzar Nagusiek, Aurrekontuen 3/2023 Foru Arau Orokorrek 66. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

2024rako Indarreko Aurrekontuaren Neurri Osagarriei buruzko uztailaren 10eko 10/2024 Foru Arauaren bidez, 9.740.962,16 euroko kreditu gehigarri bat onetsi zen, bai eta konpromiso kredituen aldaketa bat ere, zeinaren zenbatekoa 38.182.860,00 euro handitu baitzen.

Kreditu gehigarria Arabako Foru Aldundiaren diru sarrerren aurreikuspenaren eta luzatutako gastu

Cabe señalar que dado que en el ejercicio 2024 nos encontramos con una situación de prórroga, la dotación de fondos adicionales ha requerido la aprobación de créditos adicionales por las Juntas Generales de Álava, según establece el artículo 66 de la Norma Foral 3/2023, General Presupuestaria.

Mediante Norma Foral 10/2024, de 10 de julio, de medidas complementarias al presupuesto vigente para 2024 se aprobó un crédito adicional, por importe de 9.740.962,16 euros, y una modificación de los créditos de compromiso que supuso un aumento de su cuantía en 38.182.860,00 euros.

La financiación del crédito adicional se realizó con cargo la diferencia entre las previsiones de ingresos



kredituen zenbatekoaren arteko aldearen kontura finantzatu zen.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari dagokionez, kreditu gehigarria onesteak berekin ekarri zuen barruko transferentziak doitzea, finantzatu ahal izateko: zenbateko berean gehitu ziren Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuetan erakunde horrentzat ezarritako gastu transferentzien partiden zuzkidura eta erakunde autonomoaren aurrekontuan Arabako Foru Aldundiaren transferentziak jasotzen dituzten partidetako diru sarrera aurreikuspenak.

Gainera, otsailaren 2ko 714/2024 Ebazpenaren bidez, Finantza eta Aurrekontuen zuzendariak aurrekontu luzapenaren aplikazioari buruzko 2/24 Kontabilitate Jarraibidea onetsi zuen, gastu kreditu jakin batzuen zenbatekoa eguneratzeko irizpideak arautzeko xedearekin, Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren arabera luzatuak.

Hala, kontabilitate jarraibide hori aplikatuz, guztira 9.271.822,25 euroko kreditu gaitzeak onetsi ziren, eta Arabako Foru Aldundiaren diru sarreraren aurreikuspenen eta luzatutako gastu kredituen zenbatekoaren arteko aldearen kargura finantzatu dira.

Horregatik, 26.466.718,60 euroko gastuak gaitu dira guztira, eta horietatik 2.976.631,88 euro atxikitako finantzaketa duten gastuei dagozkie.

2023an, kreditu horiek 59.409.037,20 eurokoak izan ziren, eta 15.188.297,10 euro atxikitako finantzaketa zuten gastuei zegozkien.

Alde horren arrazoi nagusia da kreditu zabalgarrietan aurrekontu doikuntzak egin direla, 2023an tributu itunduen dirubilketa handiagoaren ondorioz.

2023an, tributu itunduen bilketa aurreikusitakoa baino handiagoa izan zen, eta horrek erakundeen konpromisoak jasotzen dituzten partiden gastua handitzea ekarri zuen. Horregatik guztiagatik, itxieran, hainbat aurrekontu doiketa egin behar izan ziren kreditu zabalgarrietan, aurrekontu aldaketa batzuen bidez; besteak beste, besteak beste, 22.515.908,96 euroko kreditu gaikuntza bat.

Bestalde, 2024an, dirubilketan eragin negatiboa izan zuten mutualistei PFEZean egindako itzulketek, Auzitegi Gorenaren otsailaren 28ko 255/2023 eta

de la Diputación Foral de Álava y la cuantía de los créditos de gasto prorrogados.

Por lo que se refiere al Organismo Autónomo Foral Instituto Foral de Bienestar Social, la aprobación del crédito adicional supuso un ajuste de las transferencias internas para su financiación, con un incremento del mismo importe de la dotación de las partidas que recogen las transferencias de gasto a dicho organismo en el presupuesto de la Diputación Foral de Álava y de las previsiones de ingresos de las partidas que recogen las transferencias procedentes de la Diputación Foral de Álava en el presupuesto del organismo autónomo.

Además, mediante Resolución 714/2024, de 2 de febrero, el Director de Finanzas y Presupuestos aprobó la Instrucción Contable 2/24, sobre la aplicación de la prórroga presupuestaria, al objeto de regular los criterios para la actualización de la cuantía de determinados créditos de gasto, prorrogados de acuerdo a la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria.

Así, en aplicación de dicha Instrucción Contable, se aprobaron habilitaciones de crédito por importe total de 9.271.822,25 euros, que se han financiado con cargo a la diferencia entre las previsiones de ingresos de la Diputación Foral de Álava y la cuantía de los créditos de gasto prorrogados.

Por ello se han habilitado gastos por importe total de 26.466.718,60 €, de los cuales 2.976.631,88 € corresponden a gastos con financiación afectada.

En 2023 dichos créditos fueron de 59.409.037,20 €, correspondiendo 15.188.297,10 € a gastos con financiación afectada.

El principal motivo de esta diferencia radica en los ajustes presupuestarios en los créditos ampliables como consecuencia de una mayor recaudación de tributos concertados en 2023.

En 2023 la recaudación de tributos concertados fue superior a la prevista, lo que supuso un incremento del gasto en las partidas que recogen los compromisos institucionales. Por ello, al cierre, hubo que realizar diversos ajustes presupuestarios en los créditos ampliables, mediante modificaciones presupuestarias diferentes, entre ellas, una habilitación de crédito por importe 22.515.908,96 €.

Por su parte, en 2024, la recaudación se vió afectada negativamente por las devoluciones en el IRPF a mutualistas, derivadas de las sentencias del Tribunal



apirilaren 19ko 673/2024 epailetatik eratorritakoek, eta, beraz, behin betiko dirubilketa aurreikusitakoa baino txikiagoa izan zen; ondorioz, kreditu gaitzeen bidezko kreditu zabalgarrien doikuntza 391.738,24 eurokoa izan zen, « Udalen partaidetza itundu gabeko zerga» partidan.

2023an egindako 22.515.908,96 euroko gaikuntzatik 5.763.177,49 euro "Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza (TEFF)" partidan, 16.590.087,54 euro "Aurreko urteko kupoaren likidazioa " partidan, eta 162.643,93 euro "Udalen partaidetza itundu gabeko zerga" partidan egin zen.

Azkenik, 2024an, 1.648.920,64 euro gaitu ziren, 2023ko ekitaldi ekonomikoko diruzaintzako gerakina onestearen ondorioz, eta 2023ko ekitaldian, berriz, 27.047.692,55 euro, 2022eko ekitaldi ekonomikoko diruzaintzako gerakina onestearen ondorioz.

Diru-sarreraren transferentziak 33.208.615,00 euro dira guztira.

Gastuen transferentziak 28.495.076,76 euro dira. Horietatik 23.936.058,70 euro kreditu transferentzienak dira, eta, 4.559.018,06 euro, zuzenketa teknikoena.

Hona hemen kreditu transferentzien espedienteen banaketa:

Supremo 255/2023 de 28 de febrero y 673/2024 de 19 de abril, de forma que la recaudación definitiva fue inferior a la prevista, con lo que el ajuste de los créditos ampliables mediante habilitación de crédito ascendió a 391.738,24 €, en la partida "Participación Ayuntamientos Tributos no Concertados".

De los 22.515.908,96 € habilitados en 2023, 5.763.177,49 € € fueron en la partida "Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales - FOFEL", 16.590.087,54 € en la partida "Liquidación Cupo Año Anterior" y 162.643,93 € en la partida "Participación Ayuntamientos Tributos no Concertados".

Finalmente, en 2024 se habilitaron 1.648.920,64 € como consecuencia de la aprobación del Remanente de Tesorería del ejercicio económico 2023, frente a los 27.047.692,55 € del ejercicio 2023 como consecuencia de la aprobación del Remanente de Tesorería del ejercicio económico 2022.

Las transferencias de ingresos ascienden a 33.208.615,00 euros.

Las transferencias de gastos ascienden a 28.495.076,76 €, de las cuales 23.936.058,70 € corresponden a transferencias de crédito como tal, y 4.559.018,06 € a correcciones técnicas.

Los expedientes de transferencias de crédito tienen la siguiente distribución:

(Eurotan) / (En €)

	2024. urtea Año 2024	2023. urtea Año 2023	Aldea Diferencia
3/2023 Foru Arauko 62. artikuluari lotutako transferentziak. Erabakiak Transferencias Sujetas al Art. 62 Norma Foral 3/2023. Acuerdos	13.464.162,02	37.201.910,38	-23.737.748,36
3/2023 Foru Arauko 62. artikuluari lotutako transferentziak. Foru Agindua Transferencias Sujetas al Art. 62 Norma Foral 3/2023. Orden Foral	2.347.785,47	5.470.916,18	-3.123.130,71
Erakunde konpromisoak: likidazioa Liquidación Compromisos Institucionales	1.681.892,00	31.457.321,05	-29.775.429,05
I. kapituluko partida transferentziak Transferencias de partidas del Capítulo I	94.202,71	0,00	94.202,71
"Finantza kudeaketa" programako kredituen artean egindako transferentziak Transferencias realizadas entre los distintos créditos del Programa "Gestión Financiera"	269.023,40	2.480.717,00	-2.211.693,60



	2024. urtea Año 2024	2023. urtea Año 2023	Aldea Diferencia
Kreditu transferentziak, kreditu orokorra gastu programatik beste programa batzuetara egindakoak Transferencias de Créditos del programa de gastos Crédito Global a otros programas	6.078.993,10	4.119.588,98	1.959.404,12
Guztira / Total	23.936.058,70	80.730.453,59	-56.794.394,89

3/2023 Foru Arauaren (foru erabakiak) 62. artikuluari lotutako transferentziak 23.737.748,36 euro gutxiago izan dira, eta sailak berak onetsitako kreditu transferentziak, foru arau horren 62. artikuluari lotutakoak (foru aginduak) 3.123.130,71 euro gutxiago izan dira.

Instituzioen konpromisoei dagozkien transferentziek 29.775.429,05 eurotan egin dute behera.

Horregatik guztiagatik, itxieran, kreditu zabalgarrietan aurrekontu doiketak egin behar izan ziren, hainbat aurrekontu aldaketaren bidez; besteak beste, 1.950.915,40 euroko kreditu gaitze bat egin zen 2024an eta 33.938.038,05 eurokoa 2023an.

I. kapituluko partidetan jatorria duten transferentziek 94.202,71 euroko igoera izan dute.

“Finantza kudeaketa” programako kredituen artean egindako transferentziak 2.211.693,60 eurotan murriztu dira.

Kreditu Orokorraren programa erabiltzen duten transferentziak 1.959.404,12 eurotan egin dute igoera.

Honako analisi hauek egin dira:

1. Aurrekontu aldaketen analisia, kapituluka.
2. Aurrekontu aldaketen analisia, sailez sail.
3. Kreditu Orokorraren Programari dagozkion kreditu transferentzien analisia.
4. Konpromiso kredituen aldaketen analisia / lehenago konprometitutako kredituak.
5. Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomiadunek egindako aurrekontu aldaketen analisia.

Se observa que las transferencias sujetas al artículo 62 de la Norma Foral 3/2023 (Acuerdos Forales) disminuyen en 23.737.748,36 € y las transferencias de crédito aprobadas por el propio departamento referentes al artículo 62 de la misma Norma Foral (Órdenes Forales) disminuyen en 3.123.130,71 €.

Las transferencias correspondientes a los Compromisos Institucionales disminuyen en 29.775.429,05 €.

Al cierre hubo que realizar diversos ajustes presupuestarios en los créditos ampliables, mediante modificaciones presupuestarias diferentes, entre ellas, una transferencia de crédito por importe de 1.950.915,40 € en 2024 frente a los 33.938.038,05 € de 2023.

Las transferencias con origen en partidas del Capítulo I se aumentan en 94.202,71 €.

Las transferencias realizadas entre los distintos créditos del Programa “Gestión Financiera” disminuyen en 2.211.693,60 €.

Las transferencias que utilizan el programa del Crédito Global aumentan en 1.959.404,12 €.

A continuación se procede a hacer los siguientes análisis:

1. Análisis de las modificaciones presupuestarias por capítulos.
2. Análisis de las modificaciones presupuestarias por departamentos.
3. Análisis de las transferencias de crédito del Programa del Crédito Global.
4. Análisis de las modificaciones de créditos de compromiso / créditos comprometidos anteriormente.
5. Análisis de las modificaciones presupuestarias de los Organismos Autónomos de la Diputación Foral de Álava.



1. AURREKONTU ALDAKETAK KAPITULUKA

1. ANÁLISIS DE LAS MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS POR CAPÍTULOS

Transferentziak honela banatuko genituzke kapituluka:

El total de transferencias por capítulos se distribuye de la siguiente manera:

2024. urtea/ Año 2024			(Eurotan) / (En €)
KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	0,00	94.202,71	-94.202,71
II	3.746.621,40	1.203.044,03	2.543.577,37
III	31.071,69	269.023,40	-237.951,71
IV	5.646.615,31	4.175.833,44	1.470.781,87
ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES	9.424.308,40	5.742.103,58	3.682.204,82
VI	15.970.730,75	20.156.467,90	-4.185.737,15
VII	2.816.318,50	2.596.505,28	219.813,22
VIII	283.718,67	0,00	283.718,67
IX	0,44	0,00	0,44
KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL	19.070.768,36	22.752.973,18	-3.682.204,82
GUZTIRA/ TOTAL	28.495.076,76	28.495.076,76	0,00

2023. urtea/ Año 2023			(Eurotan) / (En €)
KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	0,00	0,00	0,00
II	2.393.583,22	3.613.966,75	-1.220.383,53
III	2.467.707,12	2.480.717,00	-13.009,88
IV	38.692.077,83	39.336.464,29	-644.386,46
ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES	43.553.368,17	45.431.148,04	-1.877.779,87
VI	44.797.426,12	41.764.888,42	3.032.537,70
VII	4.795.635,17	6.195.393,16	-1.399.757,99
VIII	545.000,00	300.000,00	245.000,00
IX	0,16	0,00	0,16
KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL	50.138.061,45	48.260.281,58	1.877.779,87
GUZTIRA/ TOTAL	93.691.429,62	93.691.429,62	0,00



Transferentzien guztizko zenbatekoa 2024an 65.196.352,86 euro txikiagoa izan da 2023an baino. Funtsak kapital eragiketetatik eragiketa arruntetara igaro dira.

Eragiketa arruntei dagokienez, I. eta III. kapituluetan 94.202,71 euroko eta y 237.951,71 euroko jaitsiera izan da, hurrenez hurren.

Kapital eragiketei dagokienez, VI. kapituluan 4.185.737,15 euroko jaitsiera izan da. Bestalde, VII., VIII. eta IX. kapituluetan 219.813,22 euroko, 283.718,67 euroko eta 0,44 euroko igoera egon da, hurrenez hurren.

Hona transferentziak, zuzenketa teknikoak alde batera utzita:

El importe total de transferencias en 2024 ha sido inferior respecto al 2023 en 65.196.352,86 €. El trasvase de fondos ha sido de operaciones de capital a operaciones corrientes.

En cuanto a las operaciones corrientes, los capítulos I y III han disminuido en 94.202,71 € y 237.951,71 €, respectivamente.

En cuanto a las operaciones de capital, el capítulo VI ha disminuido en 4.185.737,15 €. Por su parte, los capítulos VII, VIII y IX han aumentado en 219.813,22 €, 283.718,67 € y 0,44 €, respectivamente.

Las transferencias excluyendo las correcciones técnicas han sido:

2024. urtea / Año 2024		(Eurotan) / (En €)	
KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	0,00	94.202,71	-94.202,71
II	3.442.170,54	850.593,17	2.591.577,37
III	31.071,69	269.023,40	-237.951,71
IV	5.491.219,65	4.069.534,21	1.421.685,44
ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES	8.964.461,88	5.283.353,49	3.681.108,39
VI	13.575.473,50	17.671.806,29	-4.096.332,79
VII	1.112.404,21	980.898,92	131.505,29
VIII	283.718,67	0,00	283.718,67
IX	0,44	0,00	0,44
KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL	14.971.596,82	18.652.705,21	-3.681.108,39
GUZTIRA / TOTAL	23.936.058,70	23.936.058,70	0,00

**2023. urtea / Año 2023****(Eurotan) / (En €)**

KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	0,00	0,00	0,00
II	1.372.208,22	2.534.676,75	-1.162.468,53
III	2.467.707,12	2.480.717,00	-13.009,88
IV	33.178.314,68	34.112.486,99	-934.172,31
ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES	37.018.230,02	39.127.880,74	-2.109.650,72
VI	40.735.251,20	37.906.653,50	2.828.597,70
VII	2.631.972,21	3.695.919,35	-1.063.947,14
VIII	345.000,00	0,00	345.000,00
IX	0,16	0,00	0,16
KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL	43.712.223,57	41.602.572,85	2.109.650,72
GUZTIRA / TOTAL	80.730.453,59	80.730.453,59	0,00

Transferentzietan zuzenketa teknikoak alde batera uzten baditugu, aurrekontu aldaketak 56.794.394,89 euro murriztu dira 2023arekin alderatuta.

2024an, transferentzien ondorioz, murriztu egin dira langile gastuetarako kredituak (94.202,71 euro), finantza gastuak (237.951,71 euro) eta inbertsio errealetarako kredituak (4.096.332,79 euro).

Bestalde, handitu egin dira gastu arruntetarako kredituak, ondasunetan eta zerbitzuetan (2.591.577,37 euro), transferentzia eta dirulaguntza arruntetan (1.421.685,44 euro), kapital-transferentzia eta -dirulaguntzetan (131.505,29 euro), finantza-aktiboetan (283.718,67 euro) eta finantza-pasiboetan (0,44 euro).

Horrela, kapital eragiketetako funtsak eragiketa arruntetara aldatu dira (3.681.108,39 euro).

Sail guztiek gastua egin baino lehen eskatu dituzte Kreditu Transferentziak, horrela bermatzen baita gastua egiteko kreditu nahikoak izango direla.

2023arekin alderatuta zenbatekoa gutxitzeko arrazoi nagusia da, lehen adierazi den bezala, kreditu zabalgarrietan aurrekontu doikuntzak egin direla.

Si excluimos en las transferencias las correcciones técnicas, las modificaciones presupuestarias han disminuido 56.794.394,89 € respecto a 2023.

En el año 2024 se observa que, como consecuencia de las transferencias, disminuyen los créditos para gastos de personal (94.202,71 €), gastos financieros (237.951,71 €), y los créditos para inversiones reales (4.096.332,79 €).

Por otro lado, aumentan los créditos para gastos corrientes en bienes y servicios (2.591.577,37 €), transferencias y subvenciones corrientes (1.421.685,44 €), transferencias y subvenciones de capital (131.505,29 €), activos financieros (283.718,67 €) y pasivos financieros (0,44 €).

De ese modo, se ha producido un trasvase de fondos de operaciones de capital a operaciones corrientes de 3.681.108,39 €.

Las transferencias de créditos son solicitadas por los diferentes departamentos con anterioridad a la ejecución del gasto, de manera que dispongan de créditos suficientes para llevarlos a cabo.

El principal motivo de la disminución de importe respecto a 2023 radica, tal y como se ha señalado anteriormente, en los ajustes presupuestarios en los



créditos ampliables.

Zuzenketa Teknikoen bidezko Kreditu
Transferentziak:

Transferencias de créditos por **correcciones técnicas**:

2024. urtea/ Año 2024

(Eurotan) / (En €)

KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	0,00	0,00	0,00
II	304.450,86	352.450,86	-48.000,00
IV	155.395,66	106.299,23	49.096,43
ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES	459.846,52	458.750,09	1.096,43
VI	2.395.257,25	2.484.661,61	-89.404,36
VII	1.703.914,29	1.615.606,36	88.307,93
VIII	0,00	0,00	0,00
KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL	4.099.171,54	4.100.267,97	-1.096,43
GUZTIRA/ TOTAL	4.559.018,06	4.559.018,06	0,00

2023. urtea/ Año 2023

(Eurotan) / (En €)

KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	0,00	0,00	0,00
II	1.021.375,00	1.079.290,00	-57.915,00
IV	5.513.763,15	5.223.977,30	289.785,85
ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES	6.535.138,15	6.303.267,30	231.870,85
VI	4.062.174,92	3.858.234,92	203.940,00
VII	2.163.662,96	2.499.473,81	-335.810,85
VIII	200.000,00	300.000,00	-100.000,00
KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL	6.425.837,88	6.657.708,73	-231.870,85
GUZTIRA/ TOTAL	12.960.976,03	12.960.976,03	0,00

Akats materialak gertatzen direnean (izatezkoak eta aritmetikoak), kontabilitate egozpen egokia lortzeko beharrezko egokitzapen tekniko onorioz zuzenketa teknikoak sortzen dira, baita Kontu Planaren arabera gastuak eta diru sarrerak egoki ez goztearen ondorioz ere.

Zuzenketa teknikoengatik 8.401.957,97 euro gutxiago izan dira 2024an, 2023. urtearekin alderatuta.

Las correcciones técnicas surgen como consecuencia de adaptaciones técnicas necesarias para obtener una adecuada imputación contable, en los supuestos de errores materiales, de hecho o aritméticos, así como los de inadecuada imputación de conceptos de gastos e ingresos, según el plan de cuentas.

Las correcciones técnicas han disminuido en 8.401.957,97 € en 2024 respecto a 2023.



Murrizketa horren arrazoi nagusia da 2023an zenbait aurrekontu doikuntza egin behar izan zirela kreditu zabalgarrietan, aurrekontu aldaketa desberdinen bidez, besteak beste, 5.168.000,00 euroko gastuen zuzenketa tekniko bat, zenbateko hori «Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funttsaren Osagarria - TEFFF» partidatik «Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funttsa – TEFFF» partidara aldatzeko.

2024an, zerga itunduen bidezko dirubilketa gutxiago izan zenez aurrekontuan jasotakoa baino, partidaren hasierako zuzkidurarekin "Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funttsaren (TEFFF) osagarria"ri dagozkion 5.168.000,00 euroak kontabilizatu ahal izan dira, aurrekontu aldaketarik izapidetu beharrik gabe.

Halaber, 2023an, hainbat kontabilitate egokitzapen izapidetu ziren, Europako Next Generation EU baliabidearen bidez finantzatzeko zenbait partidatan, finantzatzeko proiektuetan gauzatu beharreko gastuen zati bat beste kapitulu eta/edo kontzeptu batzuei egotzi behar zitzaielako. 2024an, Europako Next Generation EU baliabideak finantzatzeko partiden kontabilitate egokitzapenen zenbatekoa 27.800,80 eurokoa izan zen.

2024an, "Inbertsioen erakunde arteko planari" buruzko zuzenketa teknikoak 253.028,09 euro izan ziren, guztira.

Kopuruari dagokionez, 2023an zuzenketa teknikoko 47 espediente onetsi ziren eta 2024an, 34 espediente onetsi dira.

1.1 FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Aurrekontu aldaketa hauek egin dira:

KAPITULUAK CAPÍTULOS	HASIERAKO AURREKONTUA PRESUPUESTO INICIAL	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	BALIOGABETZEAGATIKO BAJAK BAJAS POR ANULACION	AURREKONTU ALDATUA PRESUPUESTO MODIFICADO	Aldak. (%) HArean aldean % Mod. /P.I
I	82.560.860,00	-94.202,71	85.300,00	0,00	82.551.957,29	-0,01
II	63.292.504,51	2.543.577,37	1.524.886,52	-161.539,77	67.199.428,63	6,17
GUZTIRA TOTAL	145.853.364,51	2.449.374,66	1.610.186,52	-161.539,77	149.751.385,92	2,67

El motivo principal de dicha disminución es que en 2023 hubo que realizar diversos ajustes presupuestarios en los créditos ampliables, mediante modificaciones presupuestarias diferentes, entre ellas una corrección técnica de gastos de importe 5.168.000,00 euros para trasladar dicho importe de la partida “Complemento Fondo Foral de Financiación Entidades Locales - FOFEL” a la partida “Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales - FOFEL”.

En 2024, dado que la recaudación por Tributos Concertados fue inferior a la presupuestada, con la dotación inicial de la partida se han podido contabilizar los 5.168.000,00 euros correspondientes al “Complemento Fondo Foral de Financiación Entidades Locales - FOFEL” sin necesidad de tramitar una modificación presupuestaria.

Asimismo, en 2023 se tramitaron diversas adecuaciones contables en varias partidas financiadas por el instrumento europeo NextGeneration EU, ya que parte de los gastos a ejecutar en los proyectos financiados debían imputarse en otros capítulos y/o conceptos. En 2024 el importe de las adecuaciones contables relativas a partidas financiadas por el instrumento europeo NextGeneration EU ascendió a 27.800,80 euros.

En 2024 las correcciones técnicas relativas al “Plan Interinstitucional de Inversiones” ascendieron a 253.028,09 euros.

Respecto al número, en 2023 se aprobaron 47 expedientes de corrección técnica, y en 2024 se han aprobado 34 expedientes.

1.1 GASTOS DE FUNCIONAMIENTO

Las Modificaciones Presupuestarias han sido:



"Langileen ordainsariak" I. kapitulua 85.300,00 euroan handitu da kreditu gaitzearen ondorioz.

Zenbateko hori 1.000 biztanletik beherako udalerrri eta kontzejuei laguntzera bideratuta dagoen Arabako Foru Aldundiko lanpostu zerrendako lanpostua betetzen duen pertsonaren kostua da, eta biztanle horiek Obra eta Zerbitzuen Foru Plana gauzatzeko beharrezkoak diren administrazio kontratuen espedientea izapidetzeko laguntzen onuradunak dira. Obra eta Zerbitzuen Foru Planak finantzatzen du osorik.

II. kapitulua "Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea" 2.591.577,37 euro handitu da kreditu transferenziaren bitartez. Zuzenketa teknikoengatik 48.000,00 euro murriztu da.

Transferentzia hauek kopurua dela eta nabarmendu behar dira (alde batera utzita zuzenketa teknikoak):

Igoerak:

• Katastroa mantentzea / Mantenimiento Catastro	421.987,50
• Kanpoko lanak eta zerbitzuak / Trabajos y Servicios Exteriores	250.000,00
• Dirubilketa kudeatzeko zerbitzuak / Servicios de Gestión Recaudatoria	243.749,91
• Eskola kiroleko garraioa esparru akordioa / Acuerdo Marco Transporte Deporte Escolar	210.000,00

eta gutxitzekoak:

• Energia elektrikoa / Energía Eléctrica	218.535,40
• Idazkaritza: energia elektrikoa / Secretaría: Energía Eléctrica	110.000,00
• Katastroa mantentzea / Mantenimiento Catastro	75.000,00
• Kanpoko laguntza teknikoa / Apoyo Técnico Externo	51.233,00

Zuzenketa teknikoei dagokienez, kapitulu hau 304.450,86 euro handitu da, eta 352.450,86 euro murriztu; hortaz, 48.000,00 euroko murrizketa garbia izan da.

Zuzenketa teknikoen artean, zenbateko hauek nabarmentzen dira:

• Hondakinen kudeaketa: garraioa eta tasak / Transporte y Tasas Gestión Residuos	+ 280.627,96
• CollectionCare Proiektua Museok. Horizon 2020 / Proyecto CollectionCare Museos. Horizon 2020	- 30.000,00
• Toki Erakundeen Informatizazioa / Informatización de Entidades Locales	- 18.000,00

El capítulo I "Remuneraciones de Personal" ha aumentado por habilitaciones en 85.300,00 €.

Dicho importe es el coste de la persona que ocupa el puesto de la relación de puestos de trabajo de la Diputación Foral de Álava destinado a ayudar a los concejos y municipios menores de 1.000 habitantes beneficiarios de las ayudas en la tramitación del expediente de los contratos administrativos necesarios para la ejecución del Plan Foral de Obras y Servicios, y se financia en su totalidad por el Plan Foral de Obras y Servicios.

El capítulo II "Compra de Bienes Corrientes y Servicios" ha aumentado vía transferencia de crédito en 2.591.577,37 €. Por correcciones técnicas ha disminuido en 48.000,00 €.

Entre las **transferencias** (sin considerar las correcciones técnicas) caben destacar por su importe las siguientes:

De incremento:

y de disminución:

En lo que respecta a las **correcciones técnicas**, este capítulo se ha incrementado en 304.450,86 € y se ha disminuido en 352.450,86 €, resultando un decremento neto de importe 48.000,00 €.

Entre las correcciones técnicas, destacan por su importe las siguientes:



II. kapituluak 1.524.886,52 euro handitu da, **kreditu gaitzearen** ondorioz. Diru kopuru horretatik 221.093,01 euro finantzaketa lotuko gastuei dagokie. Honako kreditu gaitzeak egin dira:

El capítulo II se ha incrementado vía **habilitación de crédito** en 1.524.886,52 €, de los cuales 221.093,01 € corresponden a Gastos con Financiación Afectada (G.F.A.). Las habilitaciones realizadas han sido las siguientes:

• Hondakinen kudeaketa: garraioa eta tasak / Transporte y Tasas Gestión Residuos	262.219,05
• Aireko Ingurune Hitzarmena / Convenio Medio Aéreo	200.000,00
• Hondakinen bilketa eta mantentze lanak / Recogida de Residuos y Mantenimiento	186.443,00
• Eraikinen zaintza eta segurtasuna / Vigilancia y Seguridad de Edificios	124.445,66
• Aiaraldearekiko hitzarmena: Museoen Sarea eta Dorretxeen Ibilbidea (F.L.G.) / Convenio Aiaraldea: Red de Museos y Ruta de Casas Torres (G.F.A.)	117.887,39
• Aireko Ingurune Erabilera / Medio Aéreo Uso	110.260,00
• Animalia hilen bilketa / Recogida Cadáveres Animales	97.560,00
• Jundizko instalazioa: errefusen helburua lortzeagatiko hobaria / Bonificación Objetivo Rechazo Planta Júndiz	75.543,45
• Hiri hondakinen gaikako bilketaren kudeaketa (F.L.G.) / Gestión Recogida Selectiva Residuos Urbanos (G.F.A.)	56.996,70
• Animalia hilak suntsitzea / Destrucción Cadáveres Animales	49.637,40
• Idazkaritza: kudeaketako zerbitzu telefonikoa / Secretaría: Servicio de Gestión Telefónica	45.795,00
• Lehengoraturako eremuak mantentzea / Mantenimiento Áreas Restauradas	40.442,99
• Idazkaritza: Agentzia betearazlearen posta zerbitzuak (F.L.G.) / Secretaría: Servicios Postales Agencia Ejecutiva (G.F.A.)	40.000,00
• Kexanako Monumentu Multzoko Ideien Lehiaketa / Concurso Ideas Conjunto Monumental Quejana	36.300,00
• CollectionCare Proiektua Museoak. Horizon 2020 / Proyecto CollectionCare Museos. Horizon 2020	30.000,00
• Idazkaritza: eraikinen garbiketa. INDESA / Secretaría: Limpieza de Edificios. INDESA	20.015,00
• Animaliak jaso eta garraiatzea / Recogida y Transporte de Animales	10.720,00
• Arkitektura: lorategiak mantentzea. INDESA / Arquitectura: Mantenimiento Jardines. INDESA	8.484,16
• Idazkaritza: Garbiketa zerbitzuaren auditoretza (F.L.G.) / Secretaría: Auditoría Servicio de Limpieza (G.F.A.)	6.208,92
• Errepideak kontrolatzeko zentroa / Centro de Control de Carreteras	5.077,80
• Idazkaritza: ikuztegi zerbitzua. INDESA / Secretaría: Servicios de Lavandería. INDESA	850,00
GUZTIRA / TOTAL:	1.524.886,52



Baliogabetzeen ondoriozko bajak 161.539,77 eurokoak izan dira, eta honako hau izan da:

- NGEU, Eraldaketa Komunitarioko Bulegoen Zerbitzua. Energia komunitateak / NGEU Servicio Oficinas de Transformación Comunitaria. Comunidades Energéticas 161.539,77

Las **bajas por anulación** ascienden a 161.539,77 €, y ha sido la siguiente:

1.2 FINANTZA GASTUAK

III. kapitulua "Finantza gastuak" % 2,00 murriztu da eta **VIII. kapitulua "Finantza-aktiboak"** % 11,19 handitu da.

Bestalde, **"Finantza-pasiboak" IX. kapitulua** ez da batere aldatu.

1.2 GASTOS FINANCIEROS

El **capítulo III "Gastos Financieros"** se ha disminuido un 2,00% y el **capítulo VIII "Activos Financieros"** se ha incrementado en un 11,19%.

Por su parte, el **capítulo IX "Pasivos Financieros"** no ha experimentado variación alguna.

KAPITULUAK CAPÍTULOS	HASIERAKO AURREKONTUA PRESUPUESTO INICIAL	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	AURREKONTU ALDATUA PRESUPUESTO MODIFICADO	Aldak. (%) H.A.ren aldean %Mod/P.I.
III	11.868.225,00	-237.951,71	0,00	11.630.273,29	-2,00
VIII	3.668.891,86	283.718,67	126.780,38	4.079.390,91	11,19
IX	68.648.516,00	0,44	0,00	68.648.516,44	0,00
GUZTIRA TOTAL	84.185.632,86	45.767,40	126.780,38	84.358.180,64	0,20

III. kapitulua 237.951,71 euro murriztu da kreditu transferentzien ondorioz, eta ez da zuzenketa teknikorik izapidetu.

"Finantza kudeaketa" programako partidak zabalgarritzat jotzen direnez, kapitulu horretan egindako ia aurrekontu aldaketa guztiak ekitaldiaren itxierako kreditu zabalgarrien aurrekontu doikuntzen ondorio dira.

Gehikuntza transferentzien artean, aipatzekoak dira honako hauek, duten zenbatekoagatik:

- Interesak. Finantzatzeko Foru Lerroa / Intereses. Línea Foral de Financiación 25.271,68
- Berandutze interesak / Intereses de Demora 5.196,28

Murrizketa transferentzia honako hau da:

- Interesak Mailegu sindikatua 2024 / Intereses Préstamo Sindicado 2024 269.023,40

El **capítulo III** ha disminuido por transferencias de crédito en 237.951,71 €, no habiéndose tramitado ninguna corrección técnica.

Dado que las partidas del programa "Gestión Financiera" tienen la calificación de ampliables, casi la totalidad de las modificaciones presupuestarias realizadas en este capítulo derivan de los ajustes presupuestarios en los créditos ampliables al cierre del ejercicio.

Entre las transferencias de aumento caben destacar por su importe las siguientes:

Siendo la transferencia de disminución:



VIII. kapituluari dagokionez, 283.718,67 euro handitu da kreditu transferentzien ondorioz, eta ez da zuzenketa teknikorik izapidetu.

Hona hemen handitzearen transferentziak:

- Mobility Lab. Erakunde arteko plana / Mobility Lab. Plan Interinstitucional 265.713,53
- Naturgolf, S.A.: Arabako Foru Aldundiaren zuzkidura / Naturgolf, S.A.: Dotación de la Diputación Foral de Álava 14.520,00
- CEIA (BIC ARABA): finantza ekarpena / CEIA (BIC ARABA): Aportación Financiera 3.485,14

VIII. kapituluari 126.780,38 euro gehitu zaizkio kreditua **gaitzearen bidez** "ABE Private Equity Fund arrisku kapitaleko funtsa" partididan, "ABE Private Equity Fund, FCR" arrisku kapitaleko funts publiko-pribatuan partaidetzak hartzeke dituen ordainketa egiteko.

IX. kapituluari dagokionez, 0,44 euro handitu da kreditu transferentzien ondorioz.

III. kapituluan bezala, transferentziak ekitaldi itxierako kreditu zabalgarrien aurrekontu doikuntzaren ondorioz egin dira.

1.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

IV. kapituluan ("Transferentzia eta dirulaguntza arruntak") % 0,58ko igoera izan da eta **VII. kapitulua** ("Kapital transferentziak eta dirulaguntzak") % 10,76 handitu da.

Respecto al **capítulo VIII**, ha aumentado por transferencias de crédito en 283.718,67 €, no habiéndose tramitado ninguna corrección técnica.

Las transferencias de aumento han sido las siguientes:

El **capítulo VIII** se ha incrementado **vía habilitación de crédito** en 126.780,38 €, en la partida "ABE Private Equity Fund Fondo de Capital Riesgo", con el objeto de realizar el desembolso pendiente de la toma de participaciones en el fondo de capital-riesgo público-privado "ABE Private Equity Fund, FCR".

En lo que respecta al **capítulo IX**, ha aumentado por transferencias de crédito en 0,44 euros.

Al igual que el capítulo III, las transferencias se han debido al ajuste presupuestario en los créditos ampliables al cierre del ejercicio.

1.3 TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES

En lo referente al **capítulo IV** "Transferencias y Subvenciones Corrientes" ha experimentado un incremento del 0,58 % y al **capítulo VII** "Transferencias y Subvenciones de Capital" ha aumentado un 10,76%.

KAPITULUAK CAPÍTULOS	HASIERAKO AURREKONTUA PRESUPUESTO INICIAL	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	BALIOGABETZEAGATIKO BAJAK BAJAS POR ANULACION	AURREKONTU ALDATUA (sartuak kontuan hartu gabe) PRESUPUESTO MODIFICADO (sin incorporados)	Aldak. (%) H.A.ren aldean %Mod. /P.I.
IV	2.781.108.068,08	1.470.781,87	14.590.630,28	0,00	2.797.169.480,23	0,58
VII	47.107.746,21	219.813,22	4.851.230,82	0,00	52.178.790,25	10,76
GUZTIRA TOTAL	2.828.215.814,29	1.690.595,09	19.441.861,10	0,00	2.849.348.270,48	0,75



Erakunde konpromisoak biltzen dituzten partidei dagokienez, honela aldatu dira:

En lo que respecta a las partidas que recogen los compromisos institucionales, su variación ha sido la siguiente:

PARTIDA PARTIDA	HASIERAKO AURREKONTUA PRESUPUESTO INICIAL	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	AURREKONTU ALDATUA PRESUPUESTO MODIFICADO	Aldak. (%) H.A.ren aldean %Mod. /P.I.
Ekarpen orokorra / Aportación General	1.939.604.917,00	-1.681.892,00	0,00	1.937.923.025,00	-0,09
Ekarpen bereziak / Aportaciones Específicas	73.776.627,00	1.681.892,00	0,00	75.458.519,00	2,28
Doikuntza Funts Orokorra / Fondo General de Ajuste	7.700.230,00	0,00	0,00	7.700.230,00	0,00
Gizarte Zerbitzuen Zorroa / Cartera Servicios Sociales	2.777.250,00	0,00	0,00	2.777.250,00	0,00
Estatuarentzako 2024ko kupoa / Cupo al Estado 2024	192.406.339,00	0,00	0,00	192.406.339,00	0,00
2023ko Kupoaren likidazioa Liquidación Cupo 2023	22.504.675,00	0,00	0,00	22.504.675,00	0,00
2023ko finantza kompentsaziaren likidazio / Liquidación Compensaciones Financieras 2023	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
TEFFF / FOFEL	277.057.082,00	0,00	0,00	277.057.082,00	0,00
Biltzar Nagusien aurrekontu zuzkidura / Dotación Presupuestaria JJGG	7.729.946,00	0,00	0,00	7.729.946,00	0,00
GUZTIRA TOTAL	2.523.557.066,00	0,00	0,00	2.523.557.066,00	0,00

IV. kapitulua 1.470.781,87 euro handitu da, kreditu transferentziaren ondorioz.

Transferentzien artean (erakunde konpromisoen partidak eta zuzenketa teknikoak kontuan hartu gabe), aipatzekoak dira honako hauek, duten zenbatekoa dela eta:

Igoerak:

- Transferentzia arrunta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari /
Transferencia Corriente Instituto Foral de Bienestar Social 1.845.544,32
- Eskualdeetako garraio publikoaren finantzaketa /
Financiación Transporte Público Comarcal 338.564,07
- Arabako Errioxako garraio publikoaren finantzaketa /
Financiación Transporte Público Rioja Alavesa 278.685,06
- Transferentzia arrunta Gazteriaren Foru Erakundeari /
Transferencia Corriente al Instituto Foral de la Juventud 243.067,37

El capítulo IV ha aumentado, vía transferencia de crédito, en 1.470.781,87 €.

Entre las transferencias (sin considerar las partidas de los compromisos institucionales y las correcciones técnicas), destacan por su importe las siguientes:

De incremento:



• Nekazaritzako ingurumen neurriak / Medidas Agroambientales	196.105,14
• Aiarako garraio publikoaren finantzaketa / Financiación Transporte Público Ayala	141.614,95
• Araba erdialdeko garraio publikoaren finantzaketa / Financiación Transporte Público Álava Central	138.955,25
• AP-1eko tarifa finkoa / Tarifa Plana AP-1	124.357,00
• AP-68ko bidesaria: dirulaguntza / Subvención Peaje AP-68	104.186,88

Eta hauek, aldiz, murrizketakoak:

Y entre las de disminución:

• Nekazaritzako ustiatzei laguntzeko neurriak / Medidas de Apoyo a Explotaciones Agrarias	1.167.906,12
• Partaidetzako aurrekontuak / Presupuestos Participativos	705.064,72
• Euskampus fundazioa: Araba Talent / Fundación Euskampus: Araba Talent	199.385,00

Zuzenketa teknikoei dagokienez, IV. kapituluak 155.395,66 euroko gehikuntza izan du eta 106.299,23 euroko murrizketa; ondorioz, 49.096,43 euroko gehikuntza garbia gertatu da. Hauek dira kapitulu honi eragiten dioten onartutako zuzenketa tekniko esanguratsuenak:

En lo que respecta a las **correcciones técnicas**, el capítulo IV se ha incrementado en 155.395,66 € y se ha disminuido en 106.299,23 €, resultando un incremento neto de importe 49.096,43 euros. Las correcciones técnicas aprobadas más significativas que afectan a este capítulo han sido las siguientes:

• Euskal Herriko Unibertsitatea: Farmazia-Advance Pharma Development. Suntsikor AKK / Universidad del País Vasco: Farmacia-Advance Pharma Development: Fungible CCA	+ 148.300,00
• BAM-Automozioko Fabrikazio Aurreratuko Zentroa / BAM-Centro de Fabricación Avanzada Automoción	- 91.000,00

Gainera, **IV. kapitulu**a 14.590.630,28 euro handitu da, **kreditu gaitzearen** bidez; haietatik 391.738,24 euro gastuei kreditu zabalgarriak doitzeko ekitaldi itxieran egindako kreditu gaitzeari dagozkie.

Además, el **capítulo IV** se ha incrementado, vía **habilitación de crédito**, en 14.590.630,28 €, de los cuales 391.738,24 € corresponden a la habilitación de crédito realizada al cierre del ejercicio para ajustar los créditos ampliables.

Onetsitako kreditu gaitzeak honakoak izan dira, erakunde konpromisoen partidak kontuan hartu gabe:

Las habilitaciones de crédito aprobadas, sin considerar las partidas de los compromisos institucionales, han sido las siguientes:

• Transferentzia arrunta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari / Transferencia Corriente Instituto Foral de Bienestar Social	12.443.618,94
• BAM-Automozioko Fabrikazio Aurreratuko Zentroa / BAM-Centro de Fabricación Avanzada Automoción	1.250.000,00
• Gazteentzako etxebizitza abalen programa / Programa de Avaless para Jóvenes Vivienda	100.000,00
• 55 urtetik gorakoentzako laguntza plana / Plan Apoyo para Personas Mayores de 55 Años	100.000,00
• Landa eremuan askotariko zerbitzuak garatzeko programa /	



Programa Desarrollo Multiservicio Rural.....	90.000,00
• Ardoaren Bidea Elkarteak: Arabako Lurralde Historikoaren hedapena / Asociación Ruta del Vino: Difusión Territorio Histórico de Álava	90.000,00
• Dirulaguntzak: organikoa AKK / Subvenciones Orgánica CCA	40.396,13
• 2023ko batzar nagusietarako dirulaguntzak / Subvenciones elecciones JJGG 2023	39.876,97
• Arabadendak. Saltoki txikiak sustatzeko programa / Arabadendak. Programa Promoción Pequeño Comercio	35.000,00
• AFARABA Elkarteak. Jarduerak / Asociación AFARABA. Actividades	10.000,00

Azkenik, **IV. kapitulu**an ez da baliogabetzeagatikok baxarik egon.

VII. kapituluari dagokionez, 219.813,22 euro handitu dira transferentzia bidez, balio garbieran. Zuzenketa teknikoak kontuan hartzen ez badira, 131.505,29 euroko gehikuntza gertatuko litzateke (hau da, zuzenketa teknikoagatik 88.307,93 euro handitzen da).

Transferentzien artean (zuzenketa teknikoak kontuan hartu gabe), aipatzekoak dira honako hauek, duten zenbatekoa dela eta:

Handitzekoak:

• Inbertsioak nekazaritzako ustategietan 2024 / Inversiones Explotaciones Agrarias 2024	308.575,26
• Nekazari gazteek enpresak sortzea 2024 / Creación Empresas Jóvenes Agricultores 2024	275.613,42
• Zuzenketa teknikoak / Cultivos Leñosos Alternativos	153.653,73

Eta hauek, aldiz, murrizketakoak:

• Lur ureztatuak modernizatzea 2024 / Modernización Regadíos 2024	383.575,26
• ADIF ekarpena Manzanosen oinezkoen pasabidea / Aportación ADIF Paso Peatonal Manzanos	200.000,00
• Zuzenketa teknikoak / Cultivos Leñosos Alternativos	161.000,00

Zuzenketa teknikoei dagokienez, **VII. kapitulu**an 1.703.914,29 euroko gehikuntza izan da eta 1.615.606,36 euroko murrizketa; ondorioz, 88.307,93 euroko gehikuntza garbia egon da. Hauek dira kapitulu honi eragiten dioten onetsitako zuzenketa tekniko esanguratsuenak:

• Osagarria: obra txikiak / Complemento Obras Menores	- 991.384,00
---	--------------

Finalmente, en el **capítulo IV**, no ha habido **bajas por anulación**.

Por lo que respecta al **capítulo VII**, se ha incrementado mediante **transferencia**, en términos netos, en 219.813,22 €. Si no consideramos las correcciones técnicas, resultaría un aumento de 131.505,29 € (es decir, que por corrección técnica se incrementa en 88.307,93 €).

Entre las transferencias (sin considerar las correcciones técnicas), destacan por su importe las siguientes:

De aumento:

Y entre las de disminución:

En lo que respecta a las **correcciones técnicas**, el **capítulo VII** se ha incrementado en 1.703.914,29 € y se ha disminuido en 1.615.606,36 €, resultando un incremento neto de importe 88.307,93 euros. Las correcciones técnicas aprobadas más significativas que afectan a este capítulo han sido las siguientes:



- Obra txikiak egitea / Ejecución de Obras Menores + 723.598,93
- Auzo harremanak sustatzeko ekimenak /
Iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales + 443.585,07
- Osagarria: auzo harremanak / Complemento Relaciones Vecinales - 175.800,00
- Euskal Herriko Unibertsitatea: Farmazia-Advance Pharma Develop AKK /
Universidad del País Vasco: Farmacia-Advance Pharma Develop CCA - 148.300,00

Kreditu gaitzei dagokienez, 4.851.230,82 euro dira eta honako hauek izan dira:

Respecto a las **habilitaciones de crédito**, éstas ascienden a 4.851.230,82 € y han sido las siguientes:

- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2022-23 AKK /
Plan Foral de Obras y Servicios 2022-23 CCA 3.715.419,99
 - Fundación EDA drinks & wine campus. Ardoaren bikaintasun-zentroa /
Fundación EDA Drinks & Wine Campus. Centro Excelencia del Vino 300.000,00
 - Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea 2024 /
Mejora Infraestructuras Agrarias 2024 300.000,00
 - ADIF ekarpena Manzanosen oinezkoen pasabidea /
Aportacion ADIF Paso Peatones Manzanos 200.000,00
 - Bastidako Udala. Haur eskolaren ekipamendua /
Ayuntamiento de Labastida. Equipamiento Haurreskola 150.000,00
 - Dirulaguntzak: organikoa inbertsioak AKK /
Subvenciones Orgánica. Inversiones CCA 89.603,87
 - Mañuetako Udala. Kaia jartzeko laguntza /
Ayuntamiento de Baños de Ebro. Ayuda para la Instalación de Muelle 60.000,00
 - Kapital transferentzia Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari /
Transferencia de Capital al Instituto Foral de Bienestar Social 30.000,00
 - Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2020-21 AKK /
Plan Foral Obras y Servicios 2020-21 CCA 6.206,96
- GUZTIRA / TOTAL: 4.851.230,82**

1.4 INBERTSIO ERREALAK

VI. kapituluak, "Inbertsio Errealak", 1.102.153,45 euroko igoera garbia izan du, hau da, % 0,96ko igoera.

1.4 INVERSIONES REALES

El **capítulo VI "Inversiones Reales"** ha experimentado un incremento neto de 1.102.153,45 €, que supone un incremento del 0,96 %.

(Eurotan / En €)

KAPITULUAK CAPÍTULOS	HASIERAKO AURREKONTUA PRESUPUESTO INICIAL	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	BALIOGABETZE. .BAJAK BAJAS POR ANULACION	AURREKONTU ALDATUA (Baliogabetzeagatiko bajekin) PRESUPUESTO MODIFICADO (Con bajas anulación)	% Mod. /P.I.
VI	114.810.163,46	-4.185.737,15	5.287.890,60	0,00	115.912.316,91	0,96



Kapitulu honek 4.185.737,15 euro murriztu da **kreditu transferentzia** bidez. Zuzenketa teknikoak direla eta, 89.404,36 euro murriztu da.

Era berean, "Kreditu Orokorra" partida 4.662.034,62 euro handitu da transferentzia bidez; beraz, partida hori kontuan hartzen ez badugu, 8.847.771,77 euroko gutxitze garbia egon izango zen transferentzia bidez.

Kapitulu honetako gainerako transferentzien artean, aipatzekoak dira honako hauek, duten zenbatekoa dela eta:

Igoerak:

• AEPI Azpiegitura nagusia 2023 AKK / PICA Infraestructura Principal 2023 CCA	445.036,69
• Manzanoseko saihesbiderako desjabetzeak ADIF hitzarmena / Expropiaciones Variante Manzanos Convenio ADIF	180.092,89
• Zanbrana Udaletxea: aurrekontu parte-hartzaileak / Ayuntamiento Zambrana: Presupuestos Participativos	177.360,00
• Bernedoko Udala: Bernedoko Gaztelua kontserbatzeko eta babesteko jarduerak / Ayuntamiento de Bernedo: Actuaciones de Conservación y Protección en el Castillo de Bernedo.....	177.360,00
• SENDAUIT hobekuntza programa / Programa SENDAUIT Mejoras	172.425,00
• BILDUZ programa. AKGSA AKK / Programa BILDUZ CCASA CCA	165.000,00
• Programa informatikoak. AKGSA. Proiektu berriak / Programas informáticos CCASA. Nuevos Proyectos	160.000,00
• Aurrekontu Parte-Hartzaileak: Lapuebla de Labarcako Errotako esku hartzea / Presupuestos Participativos: Intervención Molino de Lapuebla de Labarca	154.360,00
• Jabetza Erregistroa, Katastroa: koordinatzeko aplikazioa / Aplicativo Coordinación Registro Propiedad Catastro	150.000,00

Murrizketarik handienak hauei dagozkie:

• NGEU Adimen desgaitasuna duten pertsonentzako baliabidea Aiaraldea, AKK / NGEU Recurso Personas Discapacidad Intelectual Aiaraldea, CCA	1.990.413,00
• Ziklo integrala: proiektuak eta obrak AKK / Ciclo Integral Proyectos y Obras CCA	1.665.961,27
• Araba Digital aplikazio informatikoa, GOFeko erabiltzaileak, AKGSA, AKK / Aplicación Informática Araba Digital Usuarios IFBS CCASA CCA	863.700,00
• EGEF Bizikleta bideak / FEDER Vías Ciclistas	792.196,23
• EGEF. Lurraldearen digitalizazio integrala. AKGSA. AKK / FEDER. Digitalización Integral del Territorio. CCASA. CCA	746.708,75
• EJ hitzarmena: Nerbioiko parke lineala / Convenio GOVA: Parque Lineal del Nervión	575.688,67

Este capítulo ha disminuido vía **transferencia de crédito** en 4.185.737,15 €. Por correcciones técnicas se ha disminuido en 89.404,36 €.

Asimismo, la partida "Crédito Global" ha aumentado vía transferencias en 4.662.034,62 €, con lo que, si no consideramos dicha partida, se hubiera producido un decremento neto por transferencias de 8.847.771,77 €.

Entre las transferencias en este capítulo, destacan por su importe las siguientes:
